



Arartekoaren 2022R-2012-2019 Ebazpena, 2022, abenduaren 5koa. Horren bidez, Bermeoko Udalari gomendatzen zaio ondorioz gabe utz ditzala trafikoko araudia urratzeagatik jarritako bi zehapen.

Aurrekariak

1. Herritar batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoaren aurrean, trafikoko araudia urratzeagatik administrazio horrek jarri zizkion bi zehapenen harira, Udaltzaingoa bere ibilgailuaren aurka jarritako salaketan ondorioz.

Interesduna kexu zen ez zuelako izan zehapen horien ez eta horiek ezartzeko izapidetu ziren zehapen-prozeduren berri harik eta horiek betearazteko premiamendu-probidentziak jaso zituen arte.

Aipatu zuenez, egitate berak ekarri zituen bi zehapenak, eta hura eragin zuen arrazoa hau da: jaiegun batean, Udaltzaingoa trafikoa zaintzen ari zela, zirkulazioari muga ugari ezarriz, haren argibideei jarraitu izana.

Interesdunak kexa adierazi zuen, halaber, udalak soilik euskaraz jakinarazi ziolako premiamenduzko probidentzien aurka aurkeztu zuen errekurtsoren ebazpena, eta ez zuelako erantzun horren ostean informazio hori gaztelaniaz bidaltzeko egindako eskaerei. Horietan, kexagileak azaldu zuen euskaraz ez zekiela, eta eskatu zuela jakinarazpenak gaztelaniaz bidaltzeko.

2. Kexa izapidetzeko onartu ondoren, Arartekoak Bermeoko Udalarengana jo zuen, planteatutako gaien eta horien inguruan udalak egindako balorazioaren berri eman ziezaion.
3. Ondoren, Arartekoak aztertu egin zuen udalak emandako erantzuna, eta tokiko erakunde horri helarazi zizkion bidalitako informazioan antzemandako gabeziak eta balorazioa, haren iritzia adieraz zezan. Era berean, zehapen-prozeduren administrazio-espedienteen kopia eskatu genion.
4. Bidalitako informazioa eta espedienteak aztertu ondoren, Arartekoak udalari eskatu zion informazioa eman zezala kexaren hizpide ziren zehapenak ondorioz gabe uzteko prestasunari buruz, bidalitako idazkian adierazitako arrazoiak kontuan hartuta, hala, udalaren jarduketara formulatutako gainerako argibideetara egokitu zedin.

Udalak erantzuna eman zion Arartekoak planteaturiko kontuetako batzuei. Hala, kexagileak alegatu zuen gertaera beragatik bi zehapen desberdin jarri zizkiotela,





izan ere, bata bestea egitetik zetorren nahitaez. Horri dagokionez, udalak adierazi zigun ibilgailuak, oinezkoen gunera sartu ondoren, beste aukera bat zuela Alde Zaharretik irteteko, inolako arau-hausterik egin gabe, eta bigarren arau-haustea egin zen lekutik nahitaez igaro beharrik gabe. Era berean, udalak jakinarazi zigun kexaren sustatzaileak premiamendu-probidentzien aurka aurkeztutako errekurtsoren ebazpena itzuli egin zela haren eskaerari erantzuteko (kopia erantsi zen), baita salaketan jakinarazpenen berri emateko BOEn egindako argitalpenaren kopia erantsi ere.

Hala eta guztiz ere, udalak ez zuen inolako informaziorik eman kexaren xede diren zehapenak indarrrik gabe uzteko zuen prestasunari buruz, gure aurreko idazkian adierazi genituen arrazoiengatik; halaber, ez zuen inolako frogarik edo argudiorik eman haren jarduera, prozeduretan egindako jakinarazpenei dagokienez, aipatu genituen lege-eskakizunekin eta jurisprudentziarekin bat zetorrela ondoriozta zezakeenik.

5. Erakunde honek uste du honako gertakari hauek nabarmendu behar direla udalak helarazitako prozeduren administrazio-espedituetatik:

Zehapen prozeduraren zenbakia: XXX

- Kexagilea salatzeke arrazoia hau izan zen: "zirkulazioa debekatzeko seinalea (R-100) betetu barik ibiltzea" 2018ko irailaren 16an, 16:53an, Arresi kaleko 58. zenbakian.
- Alde zaharreko oinezkoentzako gunerako ibilgailuen sarbidea kontrolatzen duten kamerek grabatu zuten gertaera.
- Interesdunari salaketaren jakinarazpen pertsonala egiteko saiakerak Correosek egin zituen, baina alferrik izan zen, hartzailea ez zegoelako bere helbidean lehen saiakera egin zenean eta ezezaguna zelako bigarangoan. Saiakerak 2018ko irailaren 24an eta 26an egin ziren, 11:47an eta 15:55ean, hurrenez hurren.
- Jakinarazpena 2018ko azaroaren 16an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.
- Ez da jasotzen, udalak interesdunaren helbidea aurkitzeko jarduketarik egin zuenik, edo hori egitea ezinezkoa izan dela justifikatu duenik, jakin zuenean bigarren jakinarazpen-saiakerak huts egin zuela helbide horretan ezezaguna izateagatik.
- Ez dago jasota ere, ez zela baloratu edo kontuan hartu kexagilea bi egun lehenago bakarrik ez zela ezezaguna helbide berean.





Zehapen prozeduraren zenbakia: YYY

- Kexagilea salatzeko arrazoa hau izan zen: "kontrako norabideatik zirkulatzea", 2018ko irailaren 16an, 16:56an, Arresi kaleko 58. zenbakian.
- Alde zaharreko oinezkoentzako gunerako ibilgailuen sarbidea kontrolatzen duten kamerek grabatu zuten gertaera.
- Correosek, interesdunari salaketaren jakinarazpen pertsonala egiteko saiakerak, aurreko zehapen-prozeduran jakinarazpen pertsonalak egiten saiatu ziren helbide berean, egun eta ordu berberetan egin zituen, baina alferrikakoak izan ziren arrazoi berberengatik.
- Jakinarazpena 2018ko azaroaren 16an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean.
- Ez da jasotzen udalak interesdunaren helbidea aurkitzeko jarduketarik egin zuenik, edo hori egitea ezinezkoa izan dela justifikatu duenik, jakin zuenean bigarren jakinarazpen-saiakerak huts egin zuela helbide horretan ezezaguna izateagatik.
- Ez dago jasota ere, ez zela baloratu edo kontuan hartu kexagilea bi egun lehenago bakarrik ez zela ezezaguna helbide berean.
- Espedientean "salaketaren datuak" izeneko dokumentu bat ageri da, baina, nolakoa den kontuan hartuta, badirudi jarduketa horrekin bat ez datorrela, zehapen-ebazpenaren jakinarazpenarekin baizik. Aipatzen dituen zehaztapenak salaketan jasotako berberak dira.
- Azken dokumentu horren jakinarazpen pertsonalak huts egin zuen, hartzailea salaketaren jakinarazpen pertsonala egiten saiatu zen helbide berean ez zegoelako, egin ziren bi saiakeretan.
Erakunde honi eman zaion posta-dokumentazioaren kopian ez da ikusten lehen saiakera zein egunetan egin zen, baina bai ordua, hau da, 11:50ean egin zela. Bigarren saiakera 2018ko abenduaren 20an egin zen, 18:30ean.
- Administrazio-espeditentean ere ez dago jasota aipatutako jakinarazpenean adierazten den zehapen-ebazpena eta ebazpen-proposamena.
- Ez dago jasota ere, jakinarazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenik.

Gogoetak

1. Trafikoari buruzko araudiak xedatzen duenez, araudi horren aurkako arau-hausteengatik salaketan jakinarazpenak, unean bertan ematen ez badira, eta zehapen-prozedurak eragiten dituen gainerako jarduketan, Trafikoko Buruzagitza Nagusiaren erregistroetan ageri den helbidean egingo dira, salatuak bideko helbide





elektronikorik ez badu eta beste helbiderik berariaz adierazi ez badu, kexaren kasuan gertatu den moduan (Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 90. artikulua).

Prozedura batean interesdunak ezezagunak badira, jakinarazpena non egin behar den jakiten ez bada edo jakinarazpena egiten saiatu arren ezinezkoa bada, jakinarazpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki baten bidez egin behar da. Lehenengo saiakeran hartzailea ez egoteagatik jakinarazpen pertsonalak huts egiten badu, hurrengo hiru egunetan berriro egin beharko da jakinarazpena, eta inguruabar horiek jasota utzi prozeduran, saiakerak egin ziren egunarekin eta orduarekin batera (Trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legearen testu bateginaren 90. eta 91. artikulua).

Jakinarazpenak Correosek egiten dituenean, gainera, iritsiera-abisu bat utzi behar da hartzailearen postontzian, huts egindako bigarren saiakeraren ondoren (Posta-zerbitzuen prestazioa arautzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuaren 42.3 artikulua, Posta Zerbitzu Unibertsalari eta Posta Zerbitzuen Liberalizazioari buruzko uztailaren 13ko 24/1998 Legean xedatutakoa garatuz).

Konstituzio Auzitegiaren doktrina finkatuaren arabera, Espainiako Konstituzioaren 24.2. artikuluan xedatutako prozedura-bermeak aplikatu daitezke administrazioaren zehatzeko ahala baliatzeko orduan. Auzitegi horrek adierazi du prozedura-bermeak (akusazioaren berri izateko eskubidea eta defentsa-eskubidea) dakartela interesdunari dei egitea, edo behar bezala jakinaraztea prozedura abiarazi zaiola, horixe baita modu bakarra bermatzeko interesdunak aukera duela egozten zaion arau-haustearen aurrean defendatzeko, prozeduran egokitzat jotzen dituen frogak aurkezteko eta bere eskubidearekin bat etorri dagokiona alegatzeko.

Horrez gain, konstituzio-jurisprudentziak behin eta berriro adierazi du ediktu bidezko jakinarazpena egitea azken erremedioa dela, ordezkoa eta salbuespenezkoa, eta, hura erabiltzeko, alde aurretik, agortu egin behar direla jakinarazpenaren hartzailearekin harremanetan jartzeko eta, ahal dela, jakinarazitako egintza jasotzen duela ziurtatzeko modalitate egokiak, muturrera eramanda ohiko bideetatik pertsona hori non dagoen ikertzeko izapideak.

Jurisprudentzia horren arabera, ediktuen bidezko jakinarazpen-erabakia arrazoiketa-irizpideetan oinarritu behar da; haien arabera, zitazio-bide arruntak eraginkorrak ez direla ziurtatuko da (edo gutxienez hala diren arrazoizko ustea izango da).

Irailaren 17ko 93/2018 Epaia eta maiatzaren 31ko 117/2021 Epaia jurisprudentzia horren adierazgarri dira.





Auzitegi Gorenak, berriz, honako hau adierazi du: *"al objeto de determinar si debe entenderse que el acto administrativo o resolución llegó o debió llegar a conocimiento tempestivo del interesado, los elementos que, con carácter general deben ponderarse, son dos. En primer lugar, el grado de cumplimiento por la Administración de las formalidades establecidas en la norma en materia de notificaciones, en la medida en que tales formalidades van únicamente dirigidas a garantizar que el acto llegue efectivamente a conocimiento de su destinatario. Y, en segundo lugar, las circunstancias particulares concurrentes en cada caso, entre las que necesariamente deben destacarse tres: a) el grado de diligencia demostrada tanto por el interesado como por la Administración; b) el conocimiento que, no obstante el incumplimiento en su notificación de todas o algunas de las formalidades previstas en la norma, el interesado haya podido tener del acto o resolución por cualesquiera medios; y, en fin, c) el comportamiento de los terceros que, en atención a la cercanía o proximidad geográfica con el interesado, pueden aceptar y aceptan la notificación"* (Auzitegi Gorenaren 8569/2012 Epaia, azaroaren 29koa, 4. oinarri juridikoa).

Epai horretan jaso da Konstituzio Auzitegiak ordura arte emandako doktrina, bai eta Auzitegi Gorenak gai horri buruz egin duen jurisprudentzia ere.

2. Lehen adierazi den moduan, udalak Arartekoari eman dizkion administrazio-espeditenteen arabera, kexaren muina diren bi zehapen-prozeduretan interesdunari salaketak pertsonalki jakinarazteko egindako bi saiakerek huts egin zuten, ez zegoelako eta kexagilea ezezaguna zelako, hurrenez hurren, saiakerak egin ziren helbidean. Aldiz, ondoren YYY zenbakiko prozedurako zehapen-ebazpenaren jakinarazpen pertsonalak huts egin zuen hartzailea ez zegoelako.

Gure ustez, inguruabarrek ez dute uzten ulertzen administrazio horrek konstituzioaren arabera eska daitekeen eginbidetik sortutako errekerimenduak betetzea, jakinarazpenek beren helburua beteko zutela ziurtatzeko, hau da, jakinarazitako egintzak kexagileari jakinaraziko zitzaizkiola bermatzeko.

Adierazi den moduan, salaketak pertsonalki jakinarazteko lehen saiakerak huts egin zuen, hartzailea ahalegina egin zen helbidean ez zegoelako; bigarrena, berriz, bi egun geroago egin zen, eta huts egin zuen, ezezaguna baitzen. Bestalde, bi hilabete geroago YYY prozeduran egindako zehapen-ebazpenaren jakinarazpenak huts egin zuen berriz ere, egin ziren bi saiakeretan hartzailea ez zegoelako.

Interesdunak adierazi digunez, jakinarazpen pertsonaleko saiakerak egin ziren helbide berean bizi da. Ziurtatu du, gainera, postariak ez zuela bere postontzian utzi huts egindako jakinarazpenetako bakar bat ere iritsi izanaren abisua,





zehapenak betearazteko izapidetutako premiamendu-prozeduretan ez bezala (haietan abisuaren berri eman zen).

Administrazio-espedientean jasota dagoenez, salaketen jakinarazpen pertsonalaren bigarren saiakerak huts egin zuen kexagilea bere helbidean ezezaguna zelako, eta kasu horretan jakinarazpena iritsi izanaren abisua utzi beharrik ez izateak, gure ustez, interesdunaren baieztapena babes lezake, hau da, zehapen-prozeduretan egindako jakinarazpenetako bakar batean ere ez zela abisua bere postontzian utzi.

Hori horrela izan balitz, legezko formaltasun hori ere ez litzateke beteko, gutxienez YYY prozeduran zehapen-ebazpena jakinarazteari dagokionez.

Bestalde, inkongruentea eta sinesgarritasun gutxikoa dirudi pertsona bat ezezaguna izatea etxebizitza batean, ezaguna izan eta bi egunera., eta handik bi hilabetera berriro ere helbide berean ezaguna izatea.

Kontuan izan behar da, gainera, salaketen jakinarazpen pertsonalerako bigarren saiakerak huts egin zuela, posta-dokumentazioan jaso baitzen, baina hori ez dator bat benetan gertatutakoarekin; izan ere, adierazi denez, interesduna ez zen ezezaguna helbide horretan, bertan bizi baitzen.

Azaldutako guztia aintzat hartuta, gure ustez postariak ez zuen behar besteko arduraz jokatu jakinarazpen horiek egiteko orduan.

Bestalde, ez zaigu iruditzen ere udalak behar besteko arduraz jokatu zuenik zehapen-ebazpenaren jakinarazpena interesduna ezezaguna izan zen helbide berera bidaliz, haren helbidea zein zen aurrez egiaztatu gabe. Eta gauza bera pentsatzen dugu helbide horretan ez egoteagatik, ezezaguna izateagatik eta berriz ere hartzailea helbide horretan ez egoteagatik huts egindako jakinarazpenen kongruentzia- eta sinesgarritasun-eza udalak kontuan ez hartzean. Hori guztia bi hilabete eskaseko denbora-tartean, eta hasieran helbide horretan ez egotearen eta gero ezezaguna izatearen artean bi eguneko tartea bakarrik egonda.

Erakunde honen iritziz, aipatutako jurisprudentzia kexan azaldutako gaiari aplikatzeak pentsarazten du administrazio horrek ez zuela eska dakioken behar besteko arduraz jokatu zehapen-prozedura hasteko erabakiak pertsonalki interesdunari jakinarazten saiatzeko; hala, jokabide horrek kexagilearen defentsa-eskubideari eta ezarri zizkioten zehapenen baliozkotasunari eragin zien [urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.a) artikulua].

Bestalde, Arartekoaren ustez, ediktuaren jakinarazpena jo aurretik egintza interesdunari jakinarazteko eska daitekeen eginbidea areagotu egin behar da,





besteak beste, XXX zehapen-prozeduran. Halakoetan, jakinarazten den egintza zehapen-prozedura hasteko erabakia da, eta, legez, zehapen-ebazpen bihurtzen da haren aurkako alegaziorik egiten ez denean eta ezarritako epean borondatezko ordainketa murriztua egiten ez denean.

Aurreko balorazioa ikusirik, erakunde honek eusten dio administrazio horri helarazi zion ondorioari; izan ere, uste dugu salaketak behar ez bezala jakinaraztearen ondorioz ezin izan zirela zehapen-prozedurak zuzen eta egoki abiarazi, eta horrek ere eragina izango zuela ezarritako zehapenen baliozkotasunean (urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 83.1 eta 86. artikulua eta hurrengoak, azaroaren 26ko 39/2015 Legearen 39.2 eta 48 artikuluei lotuta).

Gure ustez, adierazitako eragozpenak jaso behar dira XXX zehapen-prozeduran zehatzeko ebazpenaren jakinarazpeneari; izan ere, adierazitako arrazoiak direla medio, hark ez zituen ere ondorioz jaso.

Arrazoitutako guztian oinarrituz, erakunde honek uste du Udalak kexagileari ezarritako zehapenak aztertu behar dituela adierazitako parametroen arabera, eta eraginik gabe utzi behar dituela.

Zehapenen baliogabetasunak berekin dakar hura betearazteko jarduketak baliogabeak izatea.

3. Nahiz eta premiamendu-probidentzien aurka aurkeztutako errekursoaren ebazpena jakinarazpen ondorioetarako gaztelaniara itzuli den, erakunde honek berriro gogorarazi behar dio udalari interesdunek eskubidea dutela administrazio horrekin harremanak izateko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan, eta aukeratzen duten hizkuntza horretan arreta jasotzeko, beren jarduna eskubide hori aitortzen duten arauetara egokitu dadin (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 15. artikulua, Euskararen erabilera normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5. eta 6. artikuluei lotuta).

Halaber, azpimarratu behar da jakinarazpenaren helburua dela jakinarazten den egintzaren berri ematea interesdunari, eta hori nekez beteko litzateke jakinarazpena ezagutzen ez den eta prozedurako hizkuntza gisa hautatu ez den hizkuntza ofizial batean egiten bada.





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Bermeoko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Ondoriorik gabe utz ditzala kexagileari jarri zizkion zehapenak, gomendio honen edukian azaldutako arrazoiengatik, bai eta zehapen horien betearazpena ere, ez baitu egiaztatu aipatutako prozeduretan egindako jakinarazpenak errespetatu behar ziren errekerimenduetara egokitzen zirenik.

